

“ZERBAIT EGIN BEHARKO GENUKE EUSKARA GALDU EZ DADIN”

ANE ATXURRA ZUMAIAKO BIZTANLEA

Ane Atxurak bere ikuspuntutik Zumaia nola ikusten duen 2050ean esango digu. Biztanleria, ekonomia, jasangarritasuna, klima aldaketa, eta jendarteari buruzko hinbat galdera erantzungo dizkigu.

Zumaiako biztanleria handitu ala txikitu egingo dela uste duzu 2050ean?

Nire ustez biztanleria handitu egingo da. Itsasoak beti erakartzen baidu jendea, eta Zumaia itsasaldean dago. Gainontzeko faktoreei dagokienez jaiotze kopurua txikitu, bizi itxaropena handitu eta emigrazioa ere handitu egingo direla uste dut inguruko herri guztietan bezala. Hau guztia kontuan izanda, orokorrean biztanleriaren gorakada gertatuko dela uste dut Zumaian.

2050ean orain baino haur gehiago jaioko direla uste duzu?

Bikote gehienek 1 edo 2 haur izango dituztela uste dut. Orokorrean baliteke biztanleria eta haur kopuruaren erlazioa txikitzea.

2050ean Zumaian geldituko al da arropa dendarik?

Nire ustez erropa dendekek jarraituko dute Zumaian. Herrian erropa erosi ahal izatea eroso da eta bizitza handia ematen dio herriari. Hala ere, komertzio handiek, eta internet bidezko erosketek indar handia dute eta joera hori ez dela aldatuko iruditzen zait.

Zumaiako industria handitu egingo dela uste duzu?

Bai. Zumaian badaude industria polígono bat baino gehiago. Egia da, industria guneez leku berean kontzentratzera jotzen dute, horrela hobeto funtzionatzen dutelako. Adibidez; Oikiko industria gunea handituko balitz, progresiboki betetzen joango litzatekela uste dut.

Zumaiako gasolindegia itxi egingo direla uste duzu?

Ez. Egia da kotxeak gero eta gehiago elektrikoak izango direla. Baina oraindik gasoil eta gasolinazkoek ere jarraituko dutela pentsatzen dut. Gasolindegia eraldatu egin beharko dute, eta egoera berrira egokitu.

Zumaian eguzki plakak erabiliko direla uste duzu?

Bai. Gaur egun industria berrian jartzen dira plaka fotoboltaikoak. Laister, pentsatzen dut erakunde publikoek jarriko dituztela, udaletxeek, eskolek etabar...Eta ondoren etxeetan ere jartzen hasiko direla. Egia da oraindik ez direla guztiz errentagarriak baina bide horretan aurrerapauso handia ematen ari da.

Itsasoaren maila igo eta ondorioz Itzurun hondartza desagertu egingo dela uste duzu?

Egia da itsasoaren maila igotzen ari dela baina ez dut uste Itzurun hondartza 2050erako desagertuko denik.

Klima aldaketatik euri gutxiago egin eta ur falta gertatuko dela uste duzu?

Baliteke. Estadistikek diotenez euri kopurua urtetik urtera jeisten ari da. Noiz iritsiko den momento hori esaten ez nuke jakingo.

Zumaiako jendearen ohiturak aldatuko direla uste duzu?

Bai. Beti gertatu den bezala gazteek beren ohitura berriak sortuko dituzte. Egia da ohiturak guztiz ez direla aldatuko, antzekoak izaten jarraituko dutela.

Zumaiarren artean euskararen erabilera gutxituko dela uste duzu?

Zoritzarrez bai. Urtero euskararen erabikera beruntz doa, eta zerbait egin beharko genuke hau gerta ez dadin.

